

noaua

**Aginagako festak
asteburu honetan
hasiko dira**

**Bertso Eskola
biziberritu dute**

**Kataluniaren
aldeko ekimenak
ugaritu egin dira**



Odolaren Mintzoa, etsipenari aurre eginez

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...



behetik

*Ondo pasa
Sanpraiskutan!*

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

LASER DIODO IRAUNKORRA

LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:

(prezioak sesio bakoitzeko)

EMAKUMEETAN:

- Hanka osoak+ oinbularrak+ behatzak 149€ / Hanka erdiak+oinbularrak+behatzak 99€
- Izter erdiak 99€ Besoak + hatzak 79€ / Besurreak + hatzak 69€
- Kokotsa + ezpaina 39€ / Besapeak 39€
- Besapeak + Ingleak (bikini) 79€ / Besapeak + Ingleak (brasildarrak) 89€
- Besapeak + Ingleak (osoa) 99€

GIZONETAN:

- Besapeak 39€ / Ingleak 49€ / Begitartea 19€
- Sorbalda + besaburuak 129€
- Sabelaldea + toraxa 153€
- Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€
- Besoak 99€ / Besurreak 89€
- Ipurmasailak 79€

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Albiste iruditan

Finlandiarrak bisitan

Finlandiako Lanbide Heziketako arduradun talde bat izan da egunotan gure artean. “Usurbilgo Lanbide Eskolak bere ikasleak berrizaille bilakatzeko jarraitzen dituen urratsak eta erabiltzen dituen tresnak ezagutu nahi izan dituzte”.

Usurbilgo Lanbide Eskolan sormena bultzatzen dute, erronkak ipintzen dizkiete ikasleei eta proiektuak taldeka garatzeko joera dute. Irakasle finlandiarrek diote Zubietan jaso dutena aberasgarria izan zaiela, eta “Finlandiako Lanbide Heziketako eskoletan hainbat prozesu abian jartzeko aukera aztertuko dutela”, Usurbilgo Lanbide Eskolakoek aditzera eman dutenez.



Usurbilgo Lanbide Eskolaren funtzionamendua gertutik ezagutzeko aukera izan dute.

Laburrean

1955. urteko kintoak, izen-ematea ixtear da

1955ean jaiotako en eguna urriaren 21ean izango da. “Errioxara bisita eginez egunpasa egingo dugu”. Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da: Maribi Arrospide 675 006 445 Patxi Arruti 615 760 458

Ugartondoko etxebizitzaren promozioa

Behin behineko eskaera baztertu eta onartuen zerrendak ikusgai izango dituzue irailaren 28ra arte Udaleko iragarki taulan, interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten. Gero, zozketarako behin betiko zerrendak onartuko ditu Udalak.

Ostiral honetan, elkarretaratzea

Euskal preso, iheslari eta deportatuaren eskubideen alde elkarretaratzea egingo da ostiral honetan, iluntzeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan. Patxi Uranga zoriontzeko, argazki bat aterako dute.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

Parekidetasunaren kontua

A skoren ustez pasa egiten gara parekidetasunaren kontu horrekin. Modan dago eta horregatik hainbeste zarata. Nonahi topatzen ditugu berdintasuna, parekidetasuna eta feminismoa bezalako hitzak eta han hemenka daude puntu moreak. A ze txapa. Hala ere, oraindik gaitasunik ez dugu hitz horiek elkarren artean bereizteko.

Hainbatek uste du “feminismoa” matxismoaren berdina dela, aurkako norantzian. Eta ez, ez da horrela. Feminismoaren helburua pertsona askez osaturiko jendarte parekidea eraikitzea da. Badirudi, hori jakinagatik ere zenbait min egiten diola belarrian. Nolabaiteko ‘pii’ bat entzuten dute, beharbada, zalantzan gauza asko jartzera daramalako, egoera zehatz

batzuetan oso eroso daudelako edota pribilejiatu direlako (nahiz eta ez jakin ala ez horrela sentitu). Erokeriak dira genital konkretu batzuk izateagatik hezkuntzarako sarbidea, bozkatzeko eskubidea edota gozamenerako aukera ukatzea. Oraindik orain, 2017an, zoritxarrez, errealitate dira.

Pausu batzuk atzera eman eta perspektiba zabalago batetik begiraturuz gero, harritu egingo gara. Maiz, errealitateak fikzioa gaintzen du: 2-3 urteko zikloetan, munduan, emakume izate hutsagatik emakume asko erailtzen dituzte, hain zuzen ere, II. Mundu Gerran naziek erail zituzten judutarrak adina. Hau da, 2-3 urtero holokausto bat gertatzen da, ezkutuan, isilpean. Inortxok ez du ezer ere esaten eta, are gutxiago, egiten. Jada politikoki zuzena den puntu

morea ezarri eta kito. Nahikoa.

Erailtzea oso muturrekoa da. Gainera, kasu isolatu gisa tratatzen dira jendartearen eta erailtzaileak gaixoak bailiran. Ez da hala, patriarkatuaren oinordeko osasuntsuak dira eta, hori gutxi balitz, konplizeak nonahi dituzte. Prentsan, esaterako. Aurreko astean, EiTBk honako titular hau eman zuen: emakume bat zauritu da Bilbon bikotekide ohiak labanaz eraso ostean. Filtrorik gabe barrura. Andrazkoa bera bakarrik zauritu zen. Nolabait sostengatu beharra dago egitura matxista zapaltzailea.

Guzti horri, hainbat eraso identifikatzeko zailtasuna gehitu behar zaio, zeharo barneratuta ditugu-eta. Etxerakoan kontuz ibiltzeko esaten digute, baina ez diete “ez bortxatzeko” edota “jarraipenik ez” egiteko zehazten. Beldurra norabi-

de batean sortzen dute eta erantzukizuna kontuz ez dabilen emakumearen gainean jartzen da. Erantzukizuna eta ardura, aldiz, ez dira bereak.

Gero, salaketa faltasuen afera dago. Ez hanka eta ez bururik ez duen argudioa. Hainbat legetarik egini-ko ikerketetan oinarrituta, %0,01era ere ez dira iristen. Egiaztatuta dago azterketa marduletan. Errealitatea, berriz, beste bat da: erasoan %80a egun argiz gertatzen da eta, oro har, erasotzailea ezaguna izaten da. Hortik eraso asko, gehiegi, itzalpean gelditzearena. Ez dira (judizialki) salatzen.

Eskerrak batzuk parekidetasunaren kontu horrekin pasatzen jarraitzeko prest gauden... Ekhiñe Eizagirrek dion moduan, gorri eta more ez dinagu emango amore!

Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | **Garazi Lizaso Manterola** | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

80 urtekoen ospakizun bazkaria

Z ortzi hamarkada betetzea ez da eguneroko kontua. Behar bezala ospatzeko 80 arrazoi baino gehiago egongo dira ziur. Urtero moduan, urriko lehen igandearekin batera urte kopuru hau bete duten herritarrek omenaldi beroa jasoko dute Atxega jauregian.

Gure Pakea Elkarreak antolatzen du bazkaria eta omen-

duek lagun eta senideekin batera ospatu ohi dute urtemuga berezia.

Eskaera bikoitza foru diputatuari

Usurbilgo Udalak Puntapax Eguneko Zentroko asteburuko plaza kopurua hazteko eta herriko jubilatuek udalerrri honetarako zahar egoitza bat eraikitzeko eskaerak helaraztekoak zituzten asteazken hone-

tan, Usurbila bisitan zetorren Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako foru diputatu Maite Peñari. Xehetasunak datorren NOAUA:n jasoko ditugu.

Eguneko Arreta Zerbitzua

Astearteko udal osoko bilkuran onartzekoa zuten Udalak abiatu asmo duen Eguneko Arreta zerbitzu berriaren araudia. Zerbitzua bera asteazkenean

aurkeztekoa zen jendaurrean Artzabalen. “Helburua argia da: mendetasun arriskuan edo mendetasun egoeran dauden usurbildarrei autonomiarri eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, behar izanez gero isolamendu egoerak konpentsatuz”, ohartarazi du Udalak.

Informazio gehiago, datoren astekarian.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: urriak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 2.

Eskola jazarpenari aurre, kantuan eta dantzan

Eskola jazarpenari ikusten diozuen moduan, elkarrekin dantzan eta abesten, lagun arte giro ederrean aurre egin daitekeela erakutsi zuten ostiral eguerdian, Udarregi Ikastolako HH eta LH zikloetako ikasleek.

“Ikastolan nahi dugu bizi atseginez” desio hori aldarrikatu zuten kantatuz. Modu honetan adierazi nahi izan zuten, urte hasieratik abian duten Kiva eskola jazarpenari aurre egiteko egitasmo garrantzitsu eta ezinbestekoa lantzen segiko dutela datozen hilabeteotan ere ikastolan. Gogoan izan, egitasmo hau jorratzen ari den ikastolen sarean dela Udarregi.

Eskola jazarpenaren aurkako abestia, Juanjo Respaldaren bertsoetan dago oinarritua. Xabi Solanok jarri dio musika. Honela dio:



“Ikastolan nahi dugu bizi atseginez”, desio hori aldarrikatu zuten kantu bidez.

*Zer da ba gozatzea
bestearen minez
ezin gara isildu
guztia jakinez
gauzak garbi esanda
ta aurre eginez
bideratuko dugu
erantzukizunez
Ikastolan nahi dugu
bizi atseginez.*

*Eguneroko mina
min handiegia
taldea, gu, babesa,
laguntza, begia...
Kivak aberastu du
gure hiztegia
ezin da ezkutuan
geratu egia
irribarra bedi
denon aurpegia.*

Egonaldia Kabienez

Proiektu berri bat duen Beterri-Buruntzako ekintzaileari zuzenduriko beka deialdira aurkezteko irailaren 30era arteko epea dago. Kabienez 12 hilabeteko egonaldia diruz laguntzeko aukera eskaintzen du Udalak.

Artisautza Azokako postuak

Aitzaga Elkarteak antolatutako azaroaren 1eko azokan postua jarri nahi duen artisauak, izen emateko urriaren 6ra arteko epea du, artisautzaazoka@gmail.com helbidera idatzita. Gehienez bi mahai izango ditu postu bakoitzak eta euskarak presentzia bermatua izan behar du. Dieta eta hamaketakoa jasoko du postua jartzen duenak. Antolatzaileek postuak aukeratzeko eskumena izango dute. Artisautza lantzen duen adierazlea duen agiria kontuan hartuko dute.

Gaztelekuko ordutegiak ikasturte berrian

Ikasturte hasieran da 12 urte-tik gorako gazteei zuzenduriko Gaztelekua ere. Erabiltzaile talde berri bat hasiko da gerturazten aurtengoan; DBH1ean ikasten hasi direnak.

Guraso bilera

Haien gurasoei zuzenduriko

guraso bilera deitu dute ostegun honetarako, irailak 28, 18:00etan Gaztelekuan.

Bilera honetan zerbitzuaren funtzionamenduaren berri jasoko dute gurasoek. Gaztelekuko erabiltzaile talde guztientzako ordutegia finkatu dute:

Astelehena:

16:30-18:00 DBH 3-4 / Batxilerra.
18:00-19:30 Adin guztiak.

Osteguna:

16:30-18:00 DBH 2.
18:00-19:30 Adin guztiak.

Larunbata:

16:00-17:30 DBH 1.
17:30-19:00 Adin guztiak.

Informazio gehiago: Gaztelekuan (San Inazio kalea 3) aipatu ordutegi horietan gaztelekua@usurbil.eus
943 371 050 / 688 71 38 38

Amonaren lapikoa dastatu nahi baduzu...
Gure Elkartea
~ Santuenea ~

Eguneko platera 6€ - Eramateko aukera! Deitu: 686 55 41 45

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL | jon.elorza@hotmail.com

Kataluniarekin bat eginik



EH Bilduk deituta, elkarretaratzea egin zen irailaren 20an.



Pasa den larunbatean Ernaikok talde-argazki hau egin zuten.

Kataluniako erreferendum egunaren atarian gara jada. Urriko lehen eguna gerturatu ahala eta azken asteotan Kataluniako herria paitzen ari den gertakarien harira, gehitzen doaz atxikimendu eta mobilizazioak.

Elkartasun eta salaketa ekimenon plazetako bat izan dugu Usurbil azken egunotan. EHBilduk deituta, elkarretaratze jendetsua egin zuten irailaren 20an Mikel Laboa plazan, “Cataluniarekin bat. Demokraziarekin bat” aldarripean, “urriaren 1eko erreferenduma kosta ahala kosta eragozteko Espainiako Gobernuak Katalunian abian duen jazarpen politikoa, judiziala,

USURBILGO ERNAI

“Baimenik ez! Aske izateko” dinamikaren baitan, ostegunean (hilak 28) kalera ateratzera deitu dute

poliziala eta mediatikoa ozen salatze, Kataluniako herriari gure babesa, miresmena eta elkartasuna adieraztearekin batera”. Urgentziaz deitu zuten elkarretaratzea, egun berean izandako atxilotetak, miaketak... salatze.

Ernaik hilabete hasieratik abian duen “Baimenik ez! Aske izateko” dinamikaren baitan, gazteria kalera atera-

tza deitu zuen larunbatean. “Dei egiten diogu Euskal Herriko gazteriarri irailaren 28an kalera irten eta Euskal Herri aske, sozialista, feminista eta euskalduna aldarrikatzera. Baimenik ez, aske izateko. Euskal Herriak independentzia!”.

Adi datozen deialdiei

Horiek aurreko astean Usurbilen izandako mobilizazioak. Egunotarako Katalunia babesteko ekimen gehiago antolatzen ari dira. Udalbiltzako hautetsiek (tartean Usurbilgoek) Kataluniarrei babesa adierazizieten aste hasieran. Usurbilgo Udalak astearterako deitua zuen osoko bilkuran, “Usurbilgo Udala Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat. Inde-

pendentzia” izeneko mozioa onartzekoa zen udalbatza. Xehetasun gehiago datorren astekarian jasoko ditugu.

Langileria eta gazteria kalera irteteko hitzorduak iragarri dira ostegunerako. Euskal gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru) mobilizazioak deitu dituzte hiriburuetan, eta Ernai gazte erakundeak manifestazioak.

Manifestazioa Bilbon

Gure Esku Dago mugimenduak eragile sozial, politikoa eta sindikalekin batera, “Katalunia bizitzen ari den egoera larriaren aurrean” manifestazioa deitu du erreferendum egunaren bezperarako, irailaren 30erako, Bilbon.

Autobusa antolatu da, larunbateko manifestaziora joateko

Gure Esku Dagok irmoki salatu ditu Kataluniako azken gertakariak eta erasoak, Espainiar estatua Katalunian izaten ari den esku-hartzearekiko kezka handia agertzearekin batera. “De facto, salbuespen egoera ezartzen ari da Katalunian, eskubide zibil eta politikoak masiboki urratuz”, dio Gure Esku Dagok.

Urriaren 1eko erreferen-

duma ahalbidetu behar dela aldarrikatzen du, katalanen gehiengoaren nahiari erantzuteko tresna demokratikoa dela berrestearrekin batera, eta urriaren 1etik aurrera ere laguntza eta babesa eskaintzen dute.

“Herritarrei eskatzen diegu mobilizatzeko beharraz jabetu daitezen eta adi egon daitezen datozen egunetako deialdiei”, iragarri dute.

Datozen deialdiak

Irailak 28, osteguna:

■ 11:00 Gehiengo sindikalak deitutako elkarretaratzea Donostiako Alderdi Ederren.

■ 12:00 Ernaik deitutako manifestazioa Donostiako Bulebarretik.

Irailak 30, larunbata:

■ Gure Esku Dago mugimenduak, eragile sindikal, politikoa eta sozialekin batera deitu-

tako manifestazioa Bilbon.

Usurbilgo Gure Esku Dagok autobus zerbitzua antolatu du larunbateko Bilboko manifestaziora joateko. 15:30ean abiatuko da Oiardo Kiroldegi paretik.

Irailaren 29ra arteko epea dago izen emateko, Patri, Aitzaga, Artzabal, Zubietako Alamandegin, Aginaga eta Santueneko zahar egoitze-tan.

Nafartarrak taldearen ekintza taldea

Hitzaldi, irteera eta proiektzio astea antolatuko du Nafartarrak taldeak urriaren 10etik 15erako tartean.

Urriak 10, asteartea, dokumental proiektzioa

■ 19:00 "Atxorrotx Gaztelua" dokumentala Sutegiko auditorioan. "Bere garaian Nafarroako tenentzia bat izan zen Aizorrotz, gune garrantzitsua erresumaren lurraldetasunaren sisteman. Bertan eraiki zen Erdi Aroko gaztelu nafarra, inguruko jendearentzat Atxorrotx izenekoa, tenentziaren egoitza zena, 1.200 urtean Gaztelak Nafarroako kostaldeko lurraldeak konkistatu aurretik. Gaur, Deba bailarako hondakin hauek memoria gune bat dira guretzat, gure historiaren oroigarria, gertaera askoren lekuko".

■ Sarrera: doan.

Urriak 11, asteazkena, dokumental proiektzioa

■ 19:00 "The Basques of Santazi" dokumentalaren proiektzioa, Sutegiko auditorioan.

■ Zehaztasunak: Leslie Woodhead-ek 1987an grabaturiko 52 minutuko dokumentala. "Bi urtez, Zuberoako Saint-Engrance herrixkan bi artzain-familien eguneroko bizimodua jasotzen ibiliko dira kamerak, Pirinioetan ber-



Eñaut Etxamendi kantariak eta ikertzaileak hitzaldia eskainiko du urriaren 14an. Berarekin batera Ainhoa Larrañaga Mondragon Unibertsitateko irakaslea izango da hizlari lanetan, Sutegiko auditorioko oholtzan.

NAFARTARRAK TALDEA

"Urriaren 10etik 15era, bi proiektzio, hitzaldi bat eta mendi irteera bat iragarri ditu"

tan, Belagua haranaren beste aldean. Dokumentala 80ko hamarkadaren amaiera aldera filmatu zen, haien etxaldek munduarekin lotuko zituen asfaltozko pista estreinatu berri zutenean. Sandra Ott-en ('The circle of Mountains' azterketa bikainaren egilea, 1981) azterketa antropologikoan oinarritzen da pelikula".

Urriak 14, larunbata, hitzaldia

■ 11:00 Eñaut Etxamendirekin solasaldia Sutegin.

■ Zehaztasunak: "Eñaut Etxamendi, nafarra, gizon handia, Usurbilen izango dugu. Kantaria (Etxamendi eta Larralde), hizkuntzalaria (euskararen jatorriari buruzko tesia egina du), artzaina... ekintzailea. Hamaika eskarmentu jasotako pertsona, eta abertzalea. Zeresan handia duen gizon honekin solasaldia izango dugu. Gai hauek guztiak jorratuko ditugu eta beste hainbat ere bai. Hau guztia borobiltzeko, berarekin Ainhoa Larrañaga (Mondragon Unibertsitateko irakaslea) izango dugu".

■ Sarrera: doan.

Urriak 15, igandea, mendi irteera

■ 09:00 Atxorrotx gaztelura irteera, Usurbilgo Udaleko autobus geltokitik.

■ Zehaztasunak: "Behar adina jende izanez gero, autobusa antolatuko litzateke. Bazkaria norberak eramanda. Animate, familiarekin, lagunekin... edo bakarrik. Atxorrotz mendi tontorrek (Eskoriatza) gaztelu baten aztarnak gordetzen ditu, arrano kabi bat balitz bezala. Lekuaren garaierak irudi ikaragarriak eskaintzen dizkigu. Gaztelu nafarrak bertatik zaintzen du Gipuzkoara sartzeko bidea. Handik sartu ziren gaztelarrak".

■ Izen ematea: 650 19 59 41 (Jexux).

Artzi
Patri 2011
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okidegia-Gozotegia

LABE-GOXO

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Odolaren Mintzoa: “Disko honek

Etsipenaren aurka. Izenburu hori ipini diote diskoari. Eta hein handi batean, hori da taldeak aldarrikatu nahi duena. “Disko honen helburua horri kontra egitea da, eta horri aurre egiteko aukerarik badagoela adieraztea”, Luken Arkarazok azaldu digunez.

NOAUA! Udaberriari Min(a)bizi bideoklipa aurkeztu eta biratxo bat iragarri zenuten. Nola joan dira udako emanaldi horiek?

Luken Arkarazo. Oso ondo. Diskoa grabatuta genuen ordu-rako. Maiatzean argitaratzeko asmoa genuen baina denboraz gainki ibili ginen.

Erraustegiaren aurkako kantua, hortaz, aurrerapen modukoa izan zen.

L. A. Hori da. Diskoko kantuen grabazioa otsailean amaitu genuen. Eta tartean, erraustegiaren inguruko kantu hori zegoen. Gaia pil-pilean zen, eraikuntza lanak hasi ziren eta hori dena salatu nahi genuen. Abesti motza da, dinamikoa, eta bideoklip bat egitea erabaki genuen.

Joanes Txueka. Aldi berean, udari begira zerbait aurreratu nahi genuen.

Jokin Irastorza. Grabatuta genuenez eta diskoaren plaza-ratzea udazkenara arte atze-



“Etsipenaren aurka” diskoa aurkeztuko dute ostiral honetan, hilak 29, 19:00etatik aurrera Sutegin. Argazkia: Ibai Arrieta.

JOANES TXUEKA

“Gaztea Maketa Lehiaketako finalera iristekako promozioa egiteko balio izan zuen. Gaztean elkarrizketa egin ziguten, Euskadi Irratian ere bai... Horrelakoek zabalkundearen ematen diote taldeari”

raturuko zela ikusi genuenez, *Min(a)bizi* bideoklipa aurrera-

tzea erabaki genuen.

Udaberri mugitua izan zenuten. Bideoa grabatzeaz gain, Gaztea Maketa Lehiaketan finalera iritsi zineten.

L. A. Diskoko kantuak bidali genituen Gazteara.


J. T. Kantuak grabatuak genituen eta probatzeagatik aurkeztu ginen. “Epaimahaiari gustatzen bazaizkio, ba ondo”, gure artean. Baina ez ginen sare sozialetan boto eske ibili. Horrelakoetan, botoa ematea-

ren asuntua ilun samarra izan ohi da-eta.

Finalari esker, Bilbon jotzeko aukera izan zenuten. Eta publiko berri batera iristeko aukera, akaso?

L. A. Kafe Antzokian jende dezente zegoen. Azkenean agertoki bat da, eta beste publiko baten aurrean jotzeko aukera eskaintzen dizu. Gainera streaming bidez eskaini zuten.

J. T. Promozioa egiteko balio izan zuen. Gaztean elkarrizketa egin ziguten, Euskadi Irratian ere bai. Horrelakoek zabalkundearen ematen diote taldeari.



Diskoa, jada salgai

- CDa: Usurbilen, ohiko salmenta puntuetan.
- Digitalean: Itunes, Amazon eta sareko beste hainbat plataformetan.

“Etsipenaren aurka”, aurkezpen bira

- Irailak 29 ostirala, Sutegin aurkezpen ekitaldia. 19:00.
- Urriaren 6an ostirala, Sasotako festetan (Lasarte-Orian).
- Urriaren 7an larunbata, Aginagako festetan.
- Urriaren 14an larunbata, Tolosako Bonberenean Rukularrekin batera.
- Urriaren 21ean larunbata, Andoingo gaztetxean (Errausketaren Aurkako Egunean).
- Azaroaren 3an ostirala, Orioko gaztetxean.

Jokin Irastorza: “Urte konpletoa izan da”

NOAUA! Oso urte mugitua izan da hau. 2017a izan al da taldearen urte garrantzitsuenaren?

L. A. Kontzertu gehien joko dugun urtea izango da. Hori segurua.

J. I. Urte konpletoa izan da. CDa grabatu, *Gaztea Maketa* Lehiaketan finalera iritsi, kon-

tzertu pilo bat jo...

Taldeak gero eta oihartzun handiagoa duela esan daiteke.

J. I. 2013an lehen diskoa atera genuenean ere, “Mirabe” bideokliparekin nahikoa oihartzuna lortu genuen.

L. A. Sarean gehien bat. Zuzen-

nekoetan, aldiz, jendea zure fan handia da edo bere etxe azpian jo behar duzu. Bestela ez da emanaldietara erraz hurbiltzen. Une hau klabea izango da. Disko honek markatuko du gure etorkizuna.

J. T. Datozen bi urteak disko honen arabera joango dira.

markatuko du gure etorkizuna”

NOAUA! “Etsipenaren aurka” diskoaren grabazioa beraz, urte hasieran amaitu zenuten.

Luken Arkarazo. Abendua eta otsaila bitarte grabatu genituen kantuak, Andoaingo Garate estudioan.

Eta nola joan zen?

Jokin Irastorza. Oso ondo. Nahikoa bizi. Oinarriak segituan grabatu genituen.

L. A. Guztia analogikoan grabatu dugu. Hori da lan honek duen bereizgarri nagusia. Modu horretan grabatzeak ukitu berezia ematen dio diskoari, batez ere ahotsari. Gertutasun moduko bat.

Unai Aranaren portadan bi beso ageri dira, eskuko telefonoari lotuta. Hein handi batean, hala bizi gara denak. Sareari konektatuta.

L. A. Diskoan ez da sareaz hitz egiten. Gaur egun bizi ditugun egoerez ari gara. Badirudi ilusiorik gabeko garaiak direla hauek. Arazo txiki-handi horiei pisua kentzeko asmo bat dago.



Urriaren 7an Aginagako festetan arituko dira. Argazkia: Ibai Arrieta.

LUKEN ARKARAZO

“Guztia analogikoan grabatu dugu. Hori da lan honek duen bereizgarri nagusia. Modu horretan grabatzeak ukitu berezia eman dio diskoari”

Gogoratu kantuan, prekarietateaz edota hasi berriaren patuaz mintzo zarete.

L. A. Kontzientzia kritiko horren faltaz ari gara kantu ho-

rretan.

Joanes Txueka. Portadan eskuko telefonoak agertzen dira, besoak ere bai, baina pertsonak falta dira. Ez dago pertsonarik. Aulkiak hutsik daude. Hor hutsune bat dago.

Ez ote garen tresna bihurtu. Iradokizun hori ere egin dezake azalak, ezta?

J. T. Hori da. Eta ez ote diogun hausnartzeari utzi.

L. A. Harremanetan, aurrez aurreko galera totala. Baita liga-

tzeko orduan, adibidez.

J. I. Eta baita sentimenduak adierazteko garaian ere.

L. A. Ekonomikoki gauzak gaizki daude, politikoki blokeo egoeran gaudela ematen du... Egunero hori jasotzen dugu komunikabideetan eta badirudi depresio egoera batean bizi garela. Disko honen helburua da horri kontra egitea, eta horri aurre egiteko aukera badagoela adieraztea.

Irailaren 29an egingo duzue aurkezpen ekitaldia. Sutegin, arratsaldeko 19:00etan. Nolakoa izango da? Zerbait aurreratik?

L. A. Lehenbizi, diskoari buruzko azalpen bat eskainiko dugu. Eta jendeak galderarik badu, horiek ere argituko ditugu. Eta ondoren, diskoko hiruzpalau kantu joko ditugu.

Sorpresaren bat ere izango da egun horretan. Baina hori Sutegin bertan iragarriko dute.

“Bi aurpegi ditu diskoak. Bat melodikoagoa da eta bestea gogorxeagoa”

NOAUA! Gogoratu kantua plaza-ratzearekin batera, diskoaren argitaratze eguna iragarri zenuten. Gitarra psikodeliko bat entzuten da abesti horren hasieran. Akaso badago beste intentzio bat intro horretan. Dena den, kantuak Odolaren Mintzoa taldearen betik ezaugarriak ditu, ezta?

J. I. Kantu guztiek dute Odolaren Mintzoaren nortasuna. Baina oraingoan uste dut kantu landuagoak egin ditugula. Melodikoagoak.

L. A. Aurrerapen kantu gisa aukeratu dugu Gogoratu, aurreko diskoaren ildotik dato-

rrelako. Jendeak ikus dezan taldea bueltan dela. Baina diskoan aurrera eginez gero, ikusten da beste ukitu bateko kantuak ere badirela. Tempo erdikoak, landuagoak, melodikoak...

J. T. Gitarra landuagoa dira. Melodiak ere bai. Erritmoarekin ere gehiago jokatu dugu.

L. A. Bosgarren kantutik aurrera beste fase bat hasten da. Hard core eta metal kutsukoak dira.

J. T. Bi aurpegi ditu diskoak. Bat melodikoagoa eta bestea gogorxeagoa.

“Gauzak egiteko beste modu bat dagoela erakutsiko dugu”.

Gogoratu kantuan, hain zuzen, antzeko zerbait diozue. Oihuka diskoetxetik auto-ediziorako egin duzuen aldaketa azaltzeko ere balio dezake esaldi honek, ezta?

J. T. Lehen diskoarekin errazera jo genuen. Dena Oihuka diskoetxearen esku utzi genuen eta horrek bere alde onak eta bere alde txarrak ditu. Iristen diren tokietara iristen dira berriak, eta gauzak asko errazten dituzte. Baina konformismo batean erortzen zara. Euren

esku uzten duzu eta dena egin da etorriko dela pentsatzen duzu. Eta ez da horrela. Baina ez dugu inolako kezurik Oihukarekin.

L. A. Orain ikusi dugu zer suposatzen duen disko bat plazaratzeak. Orain jabetu gara benetan.

Dena delegatu genuen due-la lau urte. Orain, pausoz pauso, lan denak guk geuk bideratu ditugu. Gauzak egiteko beste modu bat da hau. Lan gehiago suposatzen du baina satisfakzioak ere handiagoak dira.

Euskararen ginkana Buruntzaldean

Kutxa Ekogunearen ekimenak, euskararekin eta euskaraz gozatzea du helburu. Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izaten dituzte talde lehiakideek ginkana honetan. Euskal Herri mailako seigarren edizioa ospatuko da urtarriletik aurrera. Haren arrakasta ikusita, eskualde mailakoak ere hasi ziren antolatzen 2015ean, euskaraz jolastuz, herri eta eskualdeetako herritarren eta taldeen artean hizkuntzarekiko sentiberatasuna eta euskararen erabilpena sustatzeko.

Aurten lehen aldiz Buruntzaldea mailakoa antolatu dute. Eskualdean bizi edo ikasi dutenen 12-16 urteko lau taldeek parte hartu ahalko dute. Bi fase izango ditu txapelketak: internet bidezko probak lehenik urriaren 23tik azaroaren 19ra eta hor puntuazio gehien batutako lau taldeak final handian lehiatuko dira abenduaren 1ean. Finalisten artean 1.200 euro banatuko dituzte saritan. Izen ematea urriaren 3tik 22ra bideratu ahalko da, euskararenginkana.eus atarian.



Izen ematea urriaren 3tik 22ra bideratu ahalko da, euskararenginkana.eus atarian.

EUSKARAREN GINKANA

**Aurten lehen aldiz
Buruntzaldea mailakoa
antolatu dute. 12-16
urteko lau taldeek parte
hartu ahalko dute**

Udalerrri euskaldunetako gazte topaketak

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Salto! udalerrri euskaldunetako 15-18 urte artekoentzako Gazte Topaketak antolatu ditu urriaren 20tik 22ra, Orioko Itxaspe ba-

serrian. Hiru egunotan, hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera izango dute: hondartzara txangoa, kantaldiak eta kontzertuak terrazan, jolasak, solasak, bisita sorpresak... "gazteak euskal hiztun gisa sentsibilizatu, kontzientziatu, aktibatu eta ahalduntzeko. Euskaraz bizitzea eta euskararen arnasa zabaltzeko agente bilakatzea sustatu nahi da".

Izen ematea (urriaren 9ra arte) eta argibide gehiago: 943 816 699, uema.eus, hezkuntza@uema.eus, UEMA Enparan kalea 1, 2a, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa. Prezioa: 30 euro.

Euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzak, behin betiko onartuak

Euskara eta aisialdiko diru-laguntzen inguruko behin betiko ebazpena onartu zuen irailaren 18ko bilkuran Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek.

Irailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak dakartza behin betiko ebazpenon xehetasunak. Euskarako diru-laguntza deialdira, 35 herritarrek

aurkeztu zituzten eskabideak. Aisialdikoetara bakar batek ere ez.

Euskaltegiko atek zabaltzeak

Urriaren 2an abiatuko dute ikasturte berria Etumeta AEK euskaltegian. Aurretik, ostiral honetara arte, irailaren 29ra arte duzue matrikulatzeko aukera, bideotatik:

■ Eskaintza: euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikaskuntza, on line bidezko ikasketak...

■ Izen ematea:

Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@ae.eus
ae.eus
munterri.blogspot.com.es

Matematika manipulatiboan tailerra

Gurasoentzako tailer hau Aginagako ikastetxeko San Praixku Guraso Elkartek antolatu du urriaren 21erako, goizez. "Ordua eta prezioa jende kopuruaren arabera zehaztuko da", ohartarazi dute antolatzaileek. Leire Aranak bideratuko duen saio honetarako izena urriaren 11 baino lehen eman beharko da, aginaga@eskolatxikiak.org helbidera idatzita.

Esperientzia Eskola, martxan

55 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako hezkuntza eskaintzan izen emateko aukera dute internet bidez 943 377 110 telefono zenbakira deituta edo Gizarte Zerbitzuen egoitzan.

Urriaren 25ean, Irakurketa Topaketa

Ikasturteko lehen irakurketa topaketa urriaren 25erako arratsaldeko 19:00etan iragarri du Sutegi udal liburutegiak. Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" lana hartuko dute hizpide, Pako Aristik gidatuko duen hitzorduan. Liburu honen aleak eskuragarri dituzue jada liburutegian. Liburutegia jada ohiko ordutegian zabaltzen dute; astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00/16:00-19:30 artean. Larunbat goizetan itxi-ta segiko du urrira arte



Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburua aztertuko dute.




2017
San
praixku

gehigarri berezia

EPEI
SOZIALISMOA




Aginagako
eskolako ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!

**ONDO PASA
SAN PRAIXKUAK!**

E/S AGINAGA
N- 634 P.K 7,6 AGINAGA
www.gureakzerbitzuak.com



TXAPARTEGI
harategia 



bertako haragia

ondo pasa jaietan!

AGINAGA · 943 361 907

URDAIRA
Sagardotegia

**ESKATU SAGARDOA!
ONDO PASA
JAIETAN!**



Aginaga 943 37 26 91

Eskola Txikikoek aurreko larunbatean piztu zuten jai giroaren metxa

A te joka dituzten San Praixkuen pregoilari lana egin zuen joan den larunbatean Eskola Txikiaren festa handian. Puzgarrietan saltoka, jolas ezberdinen bueltan eta eskulan tailerrekin primeran pasatzen, oholtza gainean abesten eta dantzatzen eman zuten eguna Aginagako ikastetxeko ikasleek.

Larunbat honetan “AgiñaBision”

Abesteaz ari garela, abiatzeaz diren Aginagako jaietan ere kanturako norberak duen abilezia erakusteko aukera izango dute etxeko txikienek. Haurrentzako “AgiñaBision” karaokea antolatu dute larunbaterako, 18:00etan. Aurtengo berrikuntzetako bat da. Dena den Umeen Eguna, urriaren 6an ospatuko dute.

Herri afarirako txartelak, salgai

Belaunaldi ezberdinetako herriarren bilgune izan ohi den San Praixkuetako herri afaria larunbat honetarako iragarri du Jai Batzordeak, 21:30etan frontoian. Otordurako txartelak aurrez eskura ditzakezue Aitzagan eta Arraten. Helduek 25 eurotan, haurrek 12 eurotan.

Lehiaketako tortillekin, afaria

Ostiral honetan, arratsaldeko 18:30ean piztuko dute jaien hasierako suziria. Beranduxeago hasiko da patata tortilla lehiaketa, 19:30ean. Ondoren, lehiaketaren aitzakian tortilla afaria egingo da.



Oholtza gainean abesten eta dantzatzen eman zuten eguna Aginagako ikastetxeko ikasleek.



Frontoian, eskulanak egiteko aukera izan zuten aurreko larunbateko jai egunean. San Praixkutan, urriaren 6koa izango da Haurren Eguna.

Atlas geopoetiko baterako irudiak

Euskal Herriko Atlas Geopoetikoa hitzez, doinuz eta irudiz osatuta dago. Lehen tomoan, Pagola, Arnegi, Hendaia, Barkoxe, Iruñea, Bera eta Aginagako esperientziak jaso zituzten. Udaberrian aurkeztu zuten eta horren berri luze-zabal eman genuen. Honakoan, ordea, liburuan agertzen ez diren argazkietan erreparatu nahi izan dugu.

Mixel Etxekopar eta bere lagunak izan dira atlas berezi hau osatu dutenak. 2013ko San Praxiku jaietan batutako doinuak eta irudiak dira liburu-CDan islatu dituztenak. Argazki ugari egin zituzten. Hauek dira horietako batzuk.



“Euskal Herriko Atlas geopoetikoa 1” Aginagako Arrate egoitzan eta Usurbilgo Lizardi dendan ipini zuten salgai.



“Euskal Herriko Atlas geopoetikoa 1” osatzeko argazki asko atera zituzten 2013ko festetan. Hauek dira liburutik aparte geratu ziren batzuk. Argazkiak: Joanes Etxeberria.



IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.



- FATXADAK ETA TEILATUAK
- ERAIKUNTZAK
- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



Aranburu
Lore-haztegia

Ondo pasa jaietan!

EGUNERO IREKITA!

607 61 64 16 AGINAGA

ETXEBESTE
Jatetxea

Eguneko bazkariak

ondo ibili jaietan !!

 **943 36 27 40**

Ondo pasa San Praxkuetan!







KARABANAK
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA
Salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.noraiantautika.com - info@noraiantautika.com

Irailak 29, ostirala: Gora Herria Eguna

- 18:00 Iazko jaietako argazki erakusketa.
- 18:30 Txupinazoa txanpainarekin. Jarraian, preso ohien mural borratzea.
- 19:30 Patata tortilla lehiaketa.
- Ondoren, tortilla afaria, lehiaketaren aitzakian.
- 21:30 XV. Gizonezkoen palazko pilota finala eta XV. Gizonezkoen eskuzko pilota finala.

Irailak 30, larunbata: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria, suziriak bezala abiatzeko.
- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera.
- 11:30 Herriko haurrak eta animatzen direnak oilasko biltzaileekin batuko dira Mapilen.
- 14:30 Oilasko biltzaileen bazkaria Sekañan.
- 17:00 Haurren Molto Moto lasterketa, motorzaleena dirudiena garaile!
- 18:00 Haurrentzako karaokea:

AgiñaBision.

- 19:00 Kantujira Usurbilgo lagunekin. Bitartean, buruhandi bizi-biziak!
- 21:00 Herri afaria.
- 00:30 Txosnen irekiera.
- 01:00 Erromeria frontoian: Oharkabe.
- 04:00 Eliza Zaharrea: Seymar Dj.

Urriak 1, igandea: "Referendum de Independencia"

- 07:00 Baratxuri zopa jana Atarialde Elkartearen.
- 09:00 Tiroplatoa.
- 12:30 Aginagako haur dantzari taldearen ikuskizuna.
- 17:00 Haurren pilota txapelketa herrikoia, frontoi txikian!
- 18:30 Orbeldi dantza taldearen eskutik, dantza ikuskizun zoragarria frontoian.
- Ondoren, piper frijitu eta sargardo banaketa herriko plazan.

Urriak 4, asteazkena: San Praixku Eguna

- 11:00 Meza nagusiaren on-

doren, jubilatuen hamaike-takoa eta bertsolariak Aginaga Sagardotegian.

- 18:00 Herritarren arteko herri kirolak, gazteak helduen kontra!
- 18:30 Sardina eta sagardo dastaketa musikaz alaituta.
- Bitartean, XXXV. Topa Txapelketa herrikoia.

Urriak 6, ostirala: Umeen Eguna eta Gazteen Gaua

- 10:00 Jolasak frontoian.
- 13:00 Bazkari goxo-goxoa Eliza Zaharrea.
- 16:00-18:00 Tailerrak eta Puzgarriak frontoian Txatxilipurdi-koekin.
- Segidan, txokolate goxoa.
- 18:30-19:30 Disko festa, hasi ipurdiak mugitzen.
- 19:30 Apar festa plazan.
- 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian.
- 00:00 Txosnen irekiera.
- 01:00 Kontzertuak Eliza Zaharrea: Rukula eta Eskean Kristö.
- Ondoren, Karaokea.

■ Segituan, euria goitik behera.

Urriak 7, larunbata: Gaupasa Eguna

- 16:00 XXXVI. Mus Txapelketa Herrikoia Atarialde Elkartearen (izen ematea, 15:30-16:00 artean).
 - 17:00 Txosnen irekiera.
 - 17:30 Kontzertua Eliza Zaharrea: Kezka, The Hastelen's.
 - 18:00 Gorriti.
 - 19:30 Poteoa Elektro Txufla elektrotxarangarekin.
 - 00:30 Kontzertuak frontoian: Odolaren Mintzoa eta Laket.
 - 04:00 Eliza zaharrea Jotaxo DJ eta plazako karpan Balber DJ. Berehala egunak argitu duela? Guri bost!
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.
- Antolatzaileen oharrak: Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen istripuetaz. Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, ardura zibilaren aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.



ondo pasa
jaietan!



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com



VDA. E HIJOS DE
**JERONIMO
IZAGUIRRE** S.L.



**Ondo pasa
jaietan!**



943 362 146 AGINAGA
www.mariscosizaguirre.com



**Ondo pasa
San Praixkutan!**



Angulas Mayoz s.l

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK



TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94



aginaga

San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Sagardotegia



URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfno-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WiFi, bainugela
konpletoa...
Diseinu moderno eta funtzionala
Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen
da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi
duenarentzat leku ezinhobea.

Tfno-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak

Larzusta z/g. AGINAGA  943 36 17 35 · 651 703 237

Indiana Jones eta dantzarien itzulera

Apirileko 5. Dantza Egunean ez zuen aski izango antza eta Euskal Herrira bueltan dator Indiana Jones abenturazale ezaguna. Zehazkiago esanda Aginagako San Praixku jaietara, “Independentzia erreferendum” gisa izendatua duen urriko lehen igande honetan. Eta ez dator bakarrik, Orbeldi Dantza Taldeko 70 dantzari eta 11 musikarirekin batera itzuli da Ariztitxo pilotalekura.



70 dantzari eta 11 musikari arituko dira igande honetan Aginagako Ariztitxo pilotalekuan.

Joan den 5. Dantza Eguna borobiltzeko eskaini zuten zuzeneko ikuskizuna taularatu dute, aspaldi emanaldirik eskaini ez zuten Aginagan. Azken urteotan Kalezar, Usurbil edota Urdaigako jaiak bisitatu izan dituzte. Santuenea eta Atxegaldekoetan ere bai noiz edo noiz. Hitzordu honekin, Orbeldiren lanketa gertutik ezagutzeko aukera izango dute aginagarrek, “Indiana Jones eta Kaliz Sekretua” emanaldiari esker.

ORBELDI DANTZA TALDEA

Dantza Eguna borobiltzeko eskaini zuten zuzeneko ikuskizuna taularatu dute igande honetan Aginagan

Ikastaroen ordutegiak

Aginagako jaietako emanaldia-
ren biharamunean abiatuko du
Orbeldi Dantza Taldeak 2017-

18 ikasturtea, haur nahiz helduei zuzenduriko ikastaroekin. Helduen saioak finkatuak egon arren, irailaren 22an egin zuten guraso bileran adostu zituzten haur eta gaztetxoei zuzenduriko ikastaroen ordutegiak. Hemen dituzue:

Ikasturte hasiera:

■ Urriaren 2ko astea.

Haurrak

■ LH1: ostirala, 16:30-17:30.

■ LH2: ostirala, 17:30-18:30.

■ LH3: ostirala, 18:30-19:30.

■ LH4-5: asteartea, 18:30-19:30.

■ LH6: asteartea, 16:45-17:45.

■ DBH 1-2-3: ostirala, 17:30-18:30.

■ DBH4: ostirala, 16:00-17:30.

Helduak

■ Erromeria taldea, asteazketan 19:30-21:00 artean.

■ Garaikide taldea, astelehenean 19:30-21:00 artean.

■ Tradizionala: ostegunetan, 18:45-20:45 artean.

“Dantza” filma, Zinemaldian ikusgai

Orbeldi Dantza Taldea par-taide duen “Dantza” filma ikusgai izango da egunotan Donostiako 65. Zinemaldian. Edizio honetako berrikuntzen artean dugu “Glocal in Progress” izeneko zikloa. Irailaren 25etik 27ra, oraindik amaitzeke, post-produkzio-fasean dauden hiru film erakutsiko zaizkie, zinema industria munduan murgilduak dauden, besteak beste, ekoizle, banatzaile, salmenta-agente, programatzaile eta abarri, proiektuok amaitu eta nazioartean banatzen lagundu dezaten. “Industriaren



Maiatzean egin zituzten grabazioak Leitzan. Zinemaldian eskainiko dute “Glocal in progress” zikloan, baina 2018an estreinatzea aurreikusia dute.

jarduera honen helburua da hizkuntza ez-hegemonikoetan dauden Europako produkzioei ikusgaitasun

handiagoa ematea (hau da, alemanez, espainieraz, frantsesez, ingelesez, italierraz edo errusieraz filmatu

ez diren filmei)”, antolatzaileren esanetan.

Telmo Esnalek zuzendua

Hala, eslovenieraz, euskaraz eta errumanieraz ekoizten ari diren film bana dira, estreinakoz ekimen berri honetan proiektatzeko hautatu dituztenak. Euskarakoa, Telmo Esnalek zuzenduriko “Dantza” dugu.

Aipatu moduan, oraindik amaitzeke dagoen film honen grabazioetan parte hartu du Orbeldi Dantza Taldeak. Maiatzean egin zituen grabazioak Leitzan. 2018an estreinatzea aurreikusia dute.

Bertso-eskolak, ateak zabaltzear

Berpiztera doaz Bota Punttuba, udalerrri honetan lehendik ere ibilbide luzea jorratua duen bertso-eskola. Eskaintza zabalagoarekin; heldu nahiz gaztetxoei zuzenduriko ikastaroekin. Eskualdera begirako egitasmoa izango da gainera, bailarako beste bertso-eskolekiko elkarlan eta hartuemana sustatuko duena. Bota Punttubako ateak irekitzear dituzten sustatzaileekin bildu da NOAUA!

NOAUA! Nondik dator bertso-eskola berpizteko asmoa?

Eli Pagola. Xabier Amurizak 80-90 hamarkadan emandako ikastaroaren ondotik, herrietan bertso-eskolak sortzen joan ziren. Herriz herriko lanketak ordea emaitza desberdinak izan ditu. Ikastaro haren oihartzuna itzaltzen zihoala ikusten genuen eta bertsolaritzak behar zuela bultzadaxoa eskualde mailan. Hernani, Andoain eta Lasarteko bertso-eskolekin ikusten genuen ezin zela herri bakoitzean halako eskola sendo bat sortu. Beste eskualde batzuetan egiten duten moduan, eskualdeko egitura bat sortu zitekeela. Txapelketa urte hau, proiektuari lehen bultzadaxoa emateko egokia izan zitekeela ikusten genuen, herriz herri bertso eskolak pizten hastekoa, herriko jendea animatu eta dagoen errealitatea, beharrak ikusteko. Pausoka joan behar dugu. Jurgi



Jurgi Fuentes, Eli Pagola eta Josu Diez de Otalora. Eli Pagola izango da bertso-eskolako dinamizatzailea.

JURGI FUENTES

“Helduen taldeari begira, lehen aritutakoak gonbidatuko ditugu, orain hasteko gogoz daudenak. Ia denon artean taldea sortzen den”

izan dugu Usurbilen bertso eskola osatzeko lanean.

Eskualde mailako egitura horrek beraz, bertso-eskolak bildu eta elkarlana sustatzea luke xede nagusi.

E. P. Urteetan ikusi da, herri bakoitzak bere bertso-eskola izan eta herriko gauza guztietaz arduratzea borondatezko lan handia dela. Elkarren artean asko lagundu gaitzake gainera. Ez da hutsetik sortzen den egitasmoa. Antzeko esperientziak martxan dituzten Goierriin, Arituz Tolosaldean, Erriarraitz...

Usurbila itzulita, bertso-eskola abiatzeko uda aurretik hasi niten lehen urratsak ematen.

Jurgi Fuentes: Aurreko urteetako jaietako Bertsopaper Lehiaketa antolatu genuen. Aurtengoan gaztetxoei zuzen-

dutakoa ere bai. Urteetan hain bertsozalea izan eta bertso-eskola historikoa izan duen herria, ikastolako LH 5-6 mailatan hezkuntza arautuan ematen den asteroko klase batera mugatu da. Herri mailan ikusten dugu garrantzitsua dela horri segida ematea bertsotan sakondu nahi izan edo bertsoak beste era batera bizi nahi duenarentzat. Planteamendu horrekin hasiko gara orain.

Helduen taldeari begira, lehen aritutakoak gonbidatuko ditugu, orain hasteko gogoz daudenak. Ia denon artean taldea sortzen den.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Bertso-eskolaren onena, “lagun artea”

NOAUA! Bertso eskola, lanketa gune bat izatea nahi duzue?

Eli Pagola. Bertso eskolan lekua du hizkuntzarekin jolasteko interesa duen edonork. Ikusten dugu gure kultur adierazpide nagusi bat dela eta horretan jendea zailtzea, ulertzea behintzat, hortara doa bertso eskola bat.

Eskolako dinamizatzailea izango zara Eli. Hernaniko bertso eskola ondo ezagutzen duzu. Zein izango da zure egitekoa?

E. P. Hernanikoa historikoki bertso eskola sendoa izan da, baina han ere ez da alferrik egin behar lana eta horretan gabil-tza. 9 urte ingururekin edo hasiko nintzen bertan, 15 bat urterekin edo gaztetxoei klaseak ematen. Orain arte umeekin egin izan dut lan, beraiei interesa pizten, bertsoa nola den deskubriarazten, jolas modura eta ariketekin. Helduekin lan gehiago da kantatzera ausartzeko orduan, ideiak nola ordenatu, lan intelektualago bat edo izan daiteke. Halere, biek dute lekua bi lekutan. Moldatu behar dena da zuzentzen ari zaren edo 10-15 urteko gazte bati edo helduago bati, hori da alde bakarra. Nondik jo ez dakizunean dagoen estankatzeko arrisku horri begira, hor dago dinamizatzaile baten lan garrantzitsuena.

Zer nolako eskaintza prestatu duzue?

Jurgi Fuentes: Usurbilgoa hiru fronteetatik lantzea pentsatzen dugu. Bat 7-9 urte artekoen-tzat, batez ere haurrei euskarako aisialdira gerturapen bat errazteko, agian modu ludikoagoan jolas edo kantuetara bideratua. Bigarrena 9 urtetik gorako LH-DBHko ikasleentzat, ikastolatik kanpo Potxoenean egiteko asmoa dugu. Hor jada bai bertsogintza gehiago landuko da, edo bat bateko



Era berean, guraso talde batek haurrentzako bertso eskola ipini nahi du martxan. Laster deituko dute honi buruzko bilera informatibo bat.

BERTSO ESKOLA

Ez da aurrez ezagutarik behar. “Zalea izatea aski da, gero berak ikusiko du zer puntutara arte sakondu edo parte hartu nahi duen”

lehenengo pausoak emateko aukera egon daiteke. Eta hirugarrena helduen taldea izango litzateke. Bertsotan egiteaz gain, herriko bertsolaritza bultzatzeko oso egokiak izaten dira, herrian ekitaldiak antolatzeko... Partaideen artean etorri daiteke edonor bat batean ez dena ausartzen, idatziz egin nahi izan edo entzule moduan gairen bat jartzea gustatzen zaiona. Horrek ere atek irekita izango ditu.

Bertso-eskolak, lagun arteak ere izan ohi dira?

E.P. Bertso eskolak duen hoberena hori da, lagun artea. Ez dugu hainbesteko aukera belaunaldi ezberdinetakoak elkartzeko, lanetik kanpoko ekintzaren batean. Bertsolaritzak hori ere eskaintzen du.

Bertsolari Txapelketa Nagusia

abiatu den honetan, halako proiektu bat abiatzea errazagoa da? Errazagoa bertso zaleak erakartzea?

E.P. Lagungarria bai, batez ere leiho oso zabal bat delako txapelketa. Bertsolaritzan murgiltzeko har hori sortzen da. Nabarmena da, bizpahiru hilabeteetan mundu guztia da bertsozalea bat batean, denok ulertzen dugu bertsoetaz.

J. F. Igartzen da. Bertso eskolara etortzen ez bada, bertso saioetan, herrietako ekitaldietara jende asko etortzen da.

Bertsolaritzako beste figura askoren heziketa gune ere bada, askotan aipatzen ez direnak?

J. F. Azken urtetoan geroz eta gehiago aipatzen da. Gai jartzaileak, epaileak, antolakuntzara dedikatzen direnak, entzule moduan... Entzulea ere geroz eta ikasiagoa da, geroz eta kritikoagoa eta hori ere ona da. Bertsolaritzari laguntzen dio.

E.P. Bertso eskolak betetzen duen funtzioa da bai da batetik bertsotan ikastea, baina hor ere, bertsolaritzak bizi ahal izateko, ekosistema hori osatzeko egon behar dute gai jartzaileak, epaileak, sariak antolatuko dituztenak, zaleak...

“Irakasle bila ari ginen”

NOAUA! Gurasook ere bertso-eskola osatzeko asmoan zaudete, ezta?

Josu Diaz de Otalora: Gure haurrentzako bertso eskola bat martxan jartzeko asmoa genuen guraso talde batek. Euskara era ludiko batean lantzea zen asmoa. Gu bertsozaleak izanda zaletasun hau helarazi eta ikastolatik kanpo ere euskaraz ondo pasa eta lotsa kentzeko aukera paregabea ikusten genuen. Irakasle bila ari ginen. Kasualitatez, bertso-eskola berpizten ari zirela jakin genuen. Jurgirekin hartuemanetan jarri ginen, gure planteamendua azaldu genion. Urritik aurrera hasiko gara. Laster bilera deituko dugu interesa duenak azaltzeko eta hor ikusiko dugu zer eskaera dagoen. Taldea osatuko delakoan gaude.

Urriaren 3an hasiko da ikasturtea

Ikasturte hasiera:

Urriaren 3an.

Haur eta gaztetxoak

■ 7-9 urte arteko haurrentzako saioak: asmoa, astean behin 13:30-14:30 artean. Lekua zehazteke.

■ 9 urtetik gorako gaztetxoentzako saioak: asteartero 18:00-19:00 artean Potxoenean.

Helduak

■ Asteartero 19:00-20:00 artean Potxoenean.

Izena eman edo informazio gehiagorako:

botapunttubabertsoeskola@gmail.com

Senior mailako eskubaloi jokalaririk, errausketaren aurka



Aurrerantzean, partida hasi aurretik pankarta hau zabalduko dute.

Erraustegiaren aurkako aldarria neurketen hasieran plazaratzeari ekin dio Usurbil Kirol Elkarteko lehen nazional mailako senior mutilen taldeak. Ez Zubietan, ez inon erraustegirik ez dutela nahi dioten pankarta, aurreko larunbatean Oiardo Kiroldegian egin zuten moduan.

Aurrerantzean, herritik kanpoko jardunaldietan duten partida guztietan errausketaren aurkako pankarta erakustekoak dira jardunaldi hasieran. Aipatzekoa da, kirolarietara ere keinu txiki handiokin errausketaren aurkako mugimenduari erakusten ari diren babesa.

Klima-aldaketarako institutua
Etorkizunerako proiektu es-

JOKALARIEN EKIMENEZ

“Herritik kanpoko partida guztietan errausketaren aurkako pankarta erakustekoak dira”

strategikoak aurkeztu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2018-2025 urte artean gauzatu asmo duen “Etorkizuna Eraikiz” egitasmoa. Tartean, erraustegia kokatu asmo duten eremu berean, estatu nahiz nazioartean erreferentea izatea nahi duten klima-aldaketaren aurkako institutua eraiki asmo dute.

Usain txarrak etenik ez

Usain txarren arazoak ez du etenik azken aldia. Hainbat herritar kexatu dira azken egunotan,

iluntzeetan ikusi duten keagatik eta arnastutako usain txarragatik. Arazoa aspaldikoa da. Duela aste gutxi, Udalak ohar bidez jakitera eman zuenez, isurketon enpresa arduradunarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin arazoak ahal bezain laster konpontzeko ahaleginean dabil. Itxura denez ordea, arazoa bideratzeko isurketon ardura duen enpresa arazo hau bideratzeko ez da nahikoa eginen ari.

Eskubaloia Kiroldegian

Irailak 30, larunbata

- 11:00 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Egia 3.
- 17:30 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Elgoibar.
- 19:00 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Elgoibar.

Futbol partidak

Haranen

Irailak 30, larunbata

- 11:00 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Egia 3.
- 17:30 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Elgoibar.
- 19:00 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Elgoibar.

Enrique Abril Errebote Txapelketa, azken fasean

13-1 irabazi zion Zubietak Behar Zana taldeari aurreko asteburuan, Enrique Abril Errebote Txapelketako neurketa. Lehen faseko azken hitzordua zuten berez zubietarrek irailaren 24koa, baina gogoan izan irailaren 10ean Oiartzunen Txost taldekoekin

jokatu behar zuten partida bertan behera utzi zutela eguraldi txarragatik.

Partida hau jokatu arte, ezingo da abiatu errebote txapelketako azken fasea. Azken fasea datozen bi igandotan, urriaren 1 eta 8rako dute iragarria berez.

Usurbil Cup, azken txanpan

Usurbil F.T.-k antolatutako txapelketa azken txanpara gerturatu da jada. Datozen bi larunbat hauetan jokatuko dira azken neurketak; finalerdiak irailaren 30ean, eta urriaren 7an final handiak eta sari banaketa frontoian.

Urriaren 7an, bazkaria

Urriaren 7ko final saioen egunean, Usurbil Cup-eko partaideek bertan bazkaltzeko aukera izango dute, Hurbilago Elkarteko tabernarietara sukaldatuko dieten bazkariari esker.

Txartelak Txiribogan

Gurasoentzat Txiribogak paella prestatzeko asmoa du. Paella jana egin nahi duenarentzat, txartelak aurreraz eskuratu beharko dira aipatu edaritegian bertan. Arratsaldeko askaria ere Txiribogak banatuko du; txokolate gozoa hain zuzen.

Usurbil Cup partidak Irailak 30, larunbata

Haranen:

- LH 3, 4: 09:30 Futbolari Basatiak-Suzko Taldea. 09:30 Esnaola Janaridenda-Usurbil Sport.
- LH 4,5,6 neskak: 10:20 Aitzaga-Aratz. 10:20 Maiur-Mariaje.
- Alebin mutilak: 11:10 Lagun Onenak-Mur. 11:10 Bugati-Artzabal.

- Infantil neskak: 12:00 Goieko-I.P. Foto. 12:00 Saizar-Lurda.

- Infantil mutilak: 12:50 Josue-Errazkin. 12:50 Perkuak-Laurok.

Urriak 7, larunbata

Frontoian:


- LH 3,4: 09:30.
- LH 4,5,6 neskak: 10:20.
- Alebin mutilak: 11:10.
- Infantil neskak: 12:00.
- Infantil mutilak: 12:50.
- Minibenjaminak: 16:30 / 17:00 / 17:30.

Antolatzailea: Usurbil F.T.

Urriaren 8an, Anbotora

Arrasateko Gesalibar auzotik abiatu, Anbotora igo eta Urkiolan amaituko den 14,5 kilometrotako txangoa izango da. Urriaren 8an egingo dute mendi irteera baina urriaren 4a baino lehen eman behar da izena.

- Eguna: urriak 8, igandea.
- Ibilbidea: 14,5 km. "Mendi ibilaldia Arrasateko Gesalibar auzoan abiatuko da, eta Anboto mendira igo ondoren Urkiolan amaituko da".
- Abiatzeko hitzordua: 07:30ean autobusez, Oiardo Kiroldegitik.
- Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin beharko da urriaren 4a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:
Rural Kutxa:
3008 0259 163005430321
Kutxabank:
2095 5069 071068489805
- Oharrak:
-Plaza mugatuak.
-Otordua ibilbidea amaitutakoan



Plazak mugatuak izango dira. Janaria norberak eraman beharko du, edaria Andatza M.K.T.-ren esku.

egingo da.
-Janaria norberak eraman beharko du, edaria Andatza M.K.T.-ren esku.
■ Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. Federatu gabe dagoenari tramitea

egingo zaio, hala nahi badu. Egin beharrekoaren informazioa andatzamendizale.info atarian edo andatza@hotmail.com helbidera email bat idatzita jaso daiteke.
■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info
■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Eskualde mailako kirol ekimenaren 10. edizioa hilaren 8rako iragarri dute, 08:30-14:00 artean. Eskualdean barrena ditugun ibilbideak oinez hobeto eza-gutzeko aukera aproposa beraz. Ohi bezala kontrol guneak izango dira herri bakoitzean; gugandik gertuen Santuenean eta Aginagako Mapilen. Informazio gehiago: buruntzaldea.eus



Santuenean eta Aginagako Mapilen kontrol-guneak izango dira.

Baxurde Txikikoak, bizi asko Legution

Asteburuan Legution ospaturiko triatloi proban lehen postuetan sailkatu ziren Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko zenbait kide: Ion Kortza Arregi hirugarren, Aitzol Arrozpide Sarasola 8. postuan, Iñaki Añorga Unanue 9. postuan, Igor Labaka Lizarazu 47. postuan eta Erramun Erro Aizpurua 118. postuan.

Aginagako Pilota Txapelketa, final erdietan

Astearte honetan jokatukoak ziren finalerdiak. Hauek izan dira sailkatutako bikoteak:

Irailak 26 asteartea, 19:30
Santxo-Aranguren
Exposito-Lizeaga

Ojuel-Telletxea
Urbieta-Urruzola

Finala, ostiralean

Ostiral honetan, 21:30etik aurrera jokatuko dira XV. gizonezkoen palazko pilota finala eta XV. gizonezkoen eskuzko pilota finala.

Gipuzkoako Pilota Txapelketa Usurbilgo frontoian

Irailak 28 osteguna, 20:00
Eskuz binaka nagusiak
1. Maila
Pagazpe / Gazteleku.

Urriak 1 igandea, 11:30
Eskuz binaka jubenilak
2. Maila
Pagazpe / Lapke 1.

Eskuz binaka nagusiak
Ohorezko Maila
Pagazpe / Ilunpe.



Egunotan pilota partida ugari izango da Usurbilgo frontoian.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperboru 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Gizaseme langile edo jubilatu batentzat (nahiago euskalduna). 687 348 223.

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukalde arabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,
garajeak

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntai azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperboru 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale

Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko in-

terna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Euskal filologoa, Mondragon Unibertsitateko masterrarekin eta oso kurrikulum zabalarekin eskaintzen da, euskarako klaseak emateko maila guztietan. Klase partikularrak bai akademietan eta enpresetan. 638 917 714

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067



Zorionak Maddi! Urriaren 2an 3 urte beteko dituzu. Ondo ondo ospatu zure lagun eta familiarekin. Muxu potolo bat.



Zorionak Praxku zure 95. urteurrenean! Bejondeizula! Giro ederrean ospatu genuen eguna. Maite zaitugu eta segi orain arte bezain jator. Besarkada goxoa familia guztiaren partez.



Zorionak udazken ederreko anai arreba pare zoragarri honi! Praxkuk 95 urte eta Mariajuxuk 86 urte bete eta halere gazte! Muxuk famili osoaren partez, maite zaituztegu!



Zorionak Irene! Irailaren 28an zure urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasa, etxekoan partez.

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euska sukaldearen ezaqutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen

eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoren zaintza, garbiketa

lanak, tabernan arraskan aritze-ko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe.

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Pa-

perak egunean. Tel. 667 983 617.

BESTELAKOAK

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kakatua txiki bat (ninfá) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxe-ko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enorktxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuek... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa)....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 28 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 30 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 04 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Irailak 28 - urriak 08

Osteguna 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 06 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 08 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila / urria

29 ostirala

- **Aginagako jaiak** Ikus egitaraua (16. or).
- **Odolaren Mintzoaren disko berriaren aurkezpena** 19:00etan Sutegin.
- **Elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

30 larunbata

- **Aginagako jaiak** Ikus egitaraua (16. or).
- **Usurbil Cup: finalerdiak.** Goiz partean Haran.
- **Kantu jira.** Mikel Laboa plazatik abiatuko dira 19:00etan.

01 igandea

- **Aginagako jaiak** Ikus egitaraua (16. or).

Ziortza Gazte Elkarteak ostiral honetan abiatuko du ikasturtea

DBH-ko gazteek irailaren 29n ostirala emango diote hasiera kurtsoari. Arratsaldeko 19:00etan DBH1 eta DBH2 mailako ikasleek; 20:00etan DBH3 eta DBH4ko gazteek. “Ordu-tegi hauek ez dira behin betikoak, lehen saio hauetan zehaztuko ditugu gainontzekoak zein ordutan izango diren”, Ziortzatik jakinarazi dutenez.

LH5 eta LH6-koen deialdia aurrerago egingo dute, “jubenilena gure sare sozialean bitartez. Beraz, adi egon, bai Instagram (@ziortzage) bai Facebook-eko gure kontuei (Ziortza Gazte Elkarteak)”.



DBH1 eta DBH2ko ikasleak 19:00etan hasiko dira. DBH3 eta DBH4ko gazteak, 20:00etan. Argazkia, artxibokoa.

Ahalduntze ikastaroan izen ematea ixtear da

Urriaren 3an itxiko du Usurbilgo Udalak, Pepa Bojo psikologoak bideratuko duen “Doluak eta galerak, orrialdeak ixten, etapak irekitzen” emakumei zuzenduriko ahalduntze ikastaroa. Urriaren 5etik abenduaren 14ra luzatuko da ikastaroa, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegiaren atzealdeko lokalean. Izen ematea, urriaren 3ra arte: Udaleko Parekidetasun Saila parekidetasuna@usurbil.eus / 943 377 110

Larunbat honetan, kantu zaleen kalejira

Udako oporraldi osteko lehen kantu-jira larunbat honetarako, irailaren 30erako iragarri du Kantu Taldeak. 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Kantu liburuxka hartu eta abestera animatzen dute bilgunetik. Gogoan izan bestalde, entseguen hitzordua aldatu berri dutela; aurrerantzean astelehenero bilduko dira 18:00-19:00 artean Ageiraldeko musika gelan.

Datozenak

KzGuneko eskaintza

Urriaren goizez zabalduko dute, 09:00-13:00 artean. Honatx datozen ikastaroak:

- Urriak 2-17, 09:00-11:00: Ofimatika tresnak.
 - Urriak 18-27, 09:00-11:00: “Argazki ukitua GIMP erabiliz”.
 - Urriak 23-26, 11:00-13:00: “Facebook. Erabiltzaile gehien dituen sare soziala”.
 - Urriak 30-31, 09:00-11:00: “Kizoa. Collage-ak sortu eta partekatu”.
- Informazio gehiago:
Nagusia, 37 / 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Urriaren 15ean, organo kontzertua

Urriaren 15ean ostirala, arratsaldeko 19:00etan, Giampaolo di Rosa musikariak organo kontzertua eskainiko du Salvatore elizan. “Di Rosak Unibertsitateko irakaskuntzako jarduera bikain batekin eta nazioartean inprobisazioaren klase magistralak eta kontzertuak eskaintzen ditu”, Parrokiatik aditzera eman dutenez. Sarrera, doan. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Parrokia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskaltel.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825



Bizi kalitatea hobetuz

Ondo pasa Saupraiskuak!

Lizarralde
ORTOPEDIA

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkiak,
ohe artikulatuak

 Teknikari ortopeda kontsulta

 Arreta pertsonal eta espezializatua

 Online eta telefono bidezko aholkularitza

 Salmenta ondorengo zerbitzua

 Etxera banaketa

 Eskailera igogailuen instalazioa

 Komun eta etxebizitzaren egokitzapena

 Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza

 Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza

 Zapata eta ortesi gama zabala

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!





Saltoki handiak, atzeraldi ekonomikoa, internet...

ez da berdin

babestu zure herrikoa

herriko denda txikietan erosteak... handi egiten zaitu!

eman bizia, bizirik iraungo badu

hurbilag 

Ikurriko Merkataritza eta Erretailaren Ekarlea



Uharteko Udala



Euzko Legebiltzariaren
Gobernazio Nagusia